GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza

ZABALGANAko Osasun Mentaleko Zentroa
Centro de Salud Mental de ZABALGANA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA

RED DE SALUD MENTAL DE ARABA

INFORMAZIOA

ZER DA OSASUN MENTALEKO ZENTROA (OMZ)?

❑ ***Zabalganako OMZ***k hurrengo hauei atxikita dauden eta osasun mentaleko arazoak dituzten ***16 urtetik gorako pertsonei*** ematen die arreta:

- Haranak I
- Haranak II
- Iparra-Zuia
- Errioxa
- Iruña de Oca
- Lakua-Arriaga
- Sansomendi
- Habana
- Lakuabizkarra
- San Martín
- Gazalbide-Txagorritxu

❑ **Taldea** arlo hauetako hainbat profesionalek osatzen dute: psikiatria, psikologia, erizaintza (erizainak eta psikiatriako monitoreak), gizarte-lana eta administrazioa.

❑ **OMZ** ***8:00etatik 15:00etara dago zabalik, astelehenetik ostiralera.*** Lehen kontsulta eskatzeko, hitzordua aldatzeko, etab., 9:00etatik 14:00etara egiten zaio arreta jendeari.

KONTSULTAK NOLA ESKATU DAITEZKE?

❑ ***Profesional guztien kontsultak aurretiko hitzorduaren sistemaren bidez hitzartzen dira.*** Larrialdi kasuan, bakarrik ematen zaie arreta tratamendua gure zentroan hasita duten pazienteei, eta 8:00etatik 15:00etara soilik. 15:00etatik aurrera, eta larunbat, igande eta jaiegunetan, larrialdiak Arabako Unibertsitate Ospitaleko Santiago egoitzako larrialdietako zerbitzuan atenditzen dira.

❑ ***OMZra lehen mailako arretako osasun-zentroak bideratuta heltzen da.*** Horretarako, familiako medikuak, txosten labur baten bidez, kontsulta eskatzeko arrazoiak azaldu behar dizkigu. Horiez gain, arreta ematen zaie larrialdietako zerbitzuetatik, beste espezialitate mediko batzuetatik, gizarte-zerbitzuetatik etab. bidaltzen dizkiguten kasuei.

INFORMACIÓN

¿QUÉ ES EL CENTRO DE SALUD MENTAL? (C.S.M.)

❑ ***El C.S.M. de Zabalgana*** atiende a las personas ***mayores de 16 años*** que presentan problemas de salud mental y que están adscritos a:

- Valles I
- Valles II
- Norte-Zuia
- Rioja
- Iruña de Oca
- Lakua-Arriaga
- Sansomendi
- Habana
- Lakuabizkarra
- San Martín
- Gazalbide-Txagorritxu

❑ **El equipo** está formado por profesionales de la psiquiatría, la psicología, la enfermería (enfermeras y monitores psiquiátricos), el trabajo social, así como por el personal administrativo.

❑ **El C.S.M.** ***está abierto de lunes a viernes de 8 a 15 horas***, y el horario de atención al público para solicitud de primera consulta, cambios de cita, etc., es de 9 a 14 horas.

¿CÓMO SE ACCEDE A LAS CONSULTAS?

❑ ***Las consultas de todos los profesionales son concertadas exclusivamente mediante el sistema de cita previa.*** Sólo se atienden las urgencias de aquellos pacientes que ya están recibiendo tratamiento en nuestro centro y solamente de 8 a 15 h. A partir de las 15 horas y los sábados, domingos y festivos, éstas se atienden en el servicio de urgencias del Hospital Universitario de Álava sede Santiago.

❑ ***El modo de acceso al C.S.M. es por derivación del centro de salud de atención primaria,*** para lo cual su médico de cabecera nos remite un breve informe de los motivos por los que se solicita la consulta. También se atienden casos derivados desde servicios de urgencias, otras especialidades médicas, servicios sociales, etc.

NOLA LAN EGITEN DA ZABALGANAKO OMZn?

Lehenengo elkarrizketa, edo harrerako kontsulta, psikiatriako erizain espezialistak egingo du. Beharrrezkoa da asistentzia behar duen pertsona bertaratzea; ezohiko kasuetan bakarrik, eta salbuespenez, asistentzia behar duena bertaratu gabe egin liteke..

Lehen elkarrizketa horretan, informazioa jasoko da hauen gainean: kontsultarako arrazoia, aurrekari pertsonal eta familiarrak, osasun mentaleko aurretiko tratamenduak, eta familia-, gizarte- eta lan-arloetako egoera. Interes handikoa da aurretiko txosten mediko edo psikologikoen kopia izatea, baita pazienteak hartu dituen edo hartzen ari den medikamentu guztien zerrenda zehatza ere.

Jarraipena, edo hurrengo kontsultak, zentroko asistentzia-taldearen berariazko bileretan erabakitzen dira, harrerako kontsultan jasotako informazioan oinarrituta. Bilera horietan, tratamendu bakoitzerako profesionalik egokienak hautatzen dira. Profesional horiek, egokitzat joz gero, harremanetan jarri daitezke pazientearen lehen mailako arretako medikuarekin, ahalik eta arretarik seguruena emate aldera.

Tratamenduak medikazioa erabiltzea ekar dezake, berez edo bestelako tratamenduen osagarri gisa.

Psikoterapiako tratamenduaren bidez (banaka, familian edo taldean), zure arazoa baloratuko da, eta laguntza emango zaizu arazo hori ulertzeko eta, hala badagokio, zure ingurunean hari aurre egiteko. Horretarako, eskatuko dizugu arreta ematen dizun profesionalarekin ahalik eta modurik irekienenan komunikatzeko.

IRAKASKUNTZA

OMZ hau Arabako osasun-barrutiko irakaskuntzako zentro laguntzailea da. Hori dela-eta, batzuetan gurekin lanean izaten ditugu gradu ondoko prestakuntza-aldian dauden familako medikuak, psikiatrak, psikologoak edo psikiatriako erizainak.

KONFIDENTZIALTASUNA

Osasun-arloko profesional guztiok sekretu profesionala gorde behar dugu. Horregatik, ezin diogu beste inori informaziorik eman kasuei edo tratamenduei buruz, ezta senideei ere, pazienteak berak hori jakin eta onartu ezik.

Ahalik eta arretarik onena eman nahi dizugu; horretarako, galdeiguzu nahi duzun guztia, eta egiguzu egoki iruditzen zaizun edozein iradokizun.

¿CÓMO SE TRABAJA EN EL C.S.M. DE ZABALGANA?

La primera entrevista, o consulta de acogida, la realizará la enfermera especialista psiquiátrica. Es necesario que acuda la persona que requiere la asistencia; sólo en casos extraordinarios y, excepcionalmente, se podría realizar sin la presencia del involucrado.

En esta primera entrevista se recogerá información referida al motivo de consulta, antecedentes personales y familiares, existencia de tratamientos previos de salud mental y situación familiar, social y laboral. Resulta de gran interés disponer de copia de informes médicos o psicológicos previos, así como de la relación exacta de la medicación, de cualquier tipo, que el paciente esté tomando en el momento actual y la que haya estado tomando previamente.

El seguimiento, o consultas sucesivas, se decide en reuniones específicas del equipo asistencial del centro a partir de la información obtenida en la consulta de acogida. En dichas reuniones se establecen los profesionales que se consideran idóneos para realizar el tratamiento más adecuado. Estos profesionales podrán ponerse en comunicación con su médico de atención primaria cuando se considere necesario con el fin de prestarle la atención más segura posible.

El tratamiento puede requerir el uso de medicación, primariamente o como complemento de otras modalidades de tratamiento

El tratamiento de psicoterapia (sea individual, en familia o en grupo) consiste en valorar su problema, contribuir a comprenderlo y, en su caso, enfrentarse a él en el marco de su entorno. Para ello se le pide que intente comunicarse lo más abiertamente posible con el profesional que lo atiende

DOCENCIA

Este C.S.M. es centro docente colaborador del área sanitaria de Álava. Esto significa que, en ocasiones, trabajan junto a nosotros médicos de familia, psiquiatras, psicólogos o enfermeras psiquiátricas en periodo de formación postgraduada.

CONFIDENCIALIDAD

Todos los profesionales de la sanidad estamos obligados al secreto profesional. Por ello, no podemos dar información a terceros sobre los casos o los tratamientos, ni siquiera a familiares, si no es con el conocimiento y consentimiento del propio paciente

Nuestro interés es atenderle del mejor modo posible; para ello, consulte cualquier duda que le surja y háganos cualquier sugerencia que considere oportuna.

Osasun Mentala
Salud Mental

ZABALGANAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROA osasun-zentroko lehen solairuan dago, (Ilustrazioko Hiribidea 47, Vitoria-Gasteiz). Harremanetarako telefonoa: **945 29 40 80**

El **CENTRO DE SALUD MENTAL DE ZABALGANA** está ubicado en la **primera planta del centro de salud**, en la Avenida de la Ilustración nº 47, de Vitoria-Gasteiz. El teléfono de contacto es el **945 29 40 80**

L 6 Zentrotik hurbileneko **autobus-linea**:
ZABALGANA-ARKAIATE (Giza Eskubideak Hiribidea/ Eskibel Pasealekua eta Giza Eskubideak Hiribidea/Erregina Sofia geralekuak)

L 6 La ***línea de autobús*** más próxima al Centro es:
ZABALGANA-ARKAIATE (paradas en Avenida Derechos Humanos / Paseo Eskibel y Avenida Derechos Humanos/Reina Sofía

ZABALGANAKO OSA
ENTROA - CENTRO DE SALUD DE ZABALGA
EXCEPTO
AUTORIZADOS
BAIMENDUTAKOAK
IZAN EZIK